

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

- Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Hainbat beharrezko elementu beharko genituzke gure proiektuak efektiboki funtziona dezan. Batetik, guk gailu elektroniko baten beharra izango genuke. Beharrezkoa izango da aplikazioa sortzeko. Bestetik, aplikazioa sortzeko web orriren baten beharra ere izango genuke etz bertan aplikazioa programatu ahal izango genuke.



Beste faktore garrantzitsu bat bezeroek mugikorra edota edonolako gailu elektroniko bat izan beharko lukete. Hau da, nekazariak gailu elektronikorik ez badute ezingo lukete gure berri izan, ezta aplikazioan beraien produktuak salmentan jarri. Bestetik, bezeroek ere gailua izatea beharrezkoa da, bestela ez baitute produktuak erosteko aukerarik izango. Hala ere, gaur egun ez da arazo larria, etxe orotan dago ordenagailu edo mugikorrik.

Bestetik, ezinbestekoa izango zen guretzat bezeroak aurkitzea, hau da, gure aplikazioan beren produktuak saltzeko prest dauden bezeroak aurkitzea. Esaterako, inor aurkitzen ez dugunaren kasuan, gure aplikazioak ez luke zentzurik izango. Ez zuen inork erabiliko eta aplikazioa ezertarako sortuko zen.

Bestetik, beharrezkoa izango da furgoneta baten erabilera. Izan daiteke bezeroa eta nekazaria herri berean ez bizitzea edo aurrez aurre geratzeko aukerarik ez izatea. Kasu honetan gu egingo ginatke kargu produktuak bezeroari irits diezaizkion. Beraz, nekazariarekin bat egingo genuke guri produktuak emateko, eta ondoren, guk furgoneta honen bitartez, bezeroari produktuak iristea lortuko genuke. Horretarako, langile bat kontratatzea edo gutako batek produktuak banatzeko lana hartzea beharko genuke. Pertsona bat kontratatuz gero, gida baimena izatea beharrezkoa izango zen.

Honako hauek dira beharko genituen elementuak, baina gure iritziz ez dira oso eskaera zailak lortzeko eta edonon aurkitu ditzazkegula iruditzen zaigu.